



EUSKARA ZERBITZUA

Arangurengo Ibarra

7 Zk. 2010ko iraila-abendua

Informazio Buletina

ETORRI EUSKALTEGIRA!!

Iaz bezala, Jon Valdés gure Ibarra ere etorri da. Lerro hauetan euskararekin izan duen bere esperientzia jasotzen dugu.

Zergatik erabaki zenuen euskara ikasten hastea?

Ni Kolonbiatik etorri nintzen hona eta asko harritu ninduen ulertzen ez nuen hizkuntza bat entzuteak. Josuk (nire semea: Jesus de los Angeles Custodios) eskolan hasi behar zuenean, euskara ere ikasteko aukera eman zidaten. Baten prezioan bi aukeratzeko erabakia hartu nuen. Berak zein erraz ikasten zuen ikusi nuenean, ni ere gai izango nintzela pentsatu nuen.

Nola izan da zure hizkuntza ikasteko prozesua?

Gaztelarekiko oso ezberdina den hizkuntza izan arren, ez da esaten den bezain zaila. Hasieran oso azkar ikasi nuen eta oso motibagarria izan zen. Pixka bat gehiago kostatu zitaidana ikasitako hori perfektionatzea izan zen, baina interes handia nuenez, azkenean... **lortu dut!!**

Zergatik aukeratu zenuen euskaltegia?

Euskaltegietan erabiltzen den metodologia haurren ikasteko moduan oinarrituta dagoela esan zidatelako: jolastuz ikasten da, eta bizitzako egoera errealean oinarrituta. Nik hitz egiteko ikasi nahi nuen, eta bide batez, ongi pasatu. Gainera, hizkuntza bat ikasteko taldean egitea errazagoa izango zela pentsatu nuen, komunitatuz.

Zer esango zenioke euskara ikasteko erabakia hartzekotan dagoen horri?

Animatzeko eta lehenbailehen hasteko. Ongi pasatuko duela eta ia konturatu gabe ikasiko duela. Damutuko zaion bakarria lehen hasi ez izana izango dela. Hau bera da nire emazteari, Altgraciari, esan diodana eta berak ere euskaltegian izena eman du. Hemendik gutxira nire familia osoak hizkuntza polit honetan ere hitz egingo dugula espero dut.

Gainera, zuek denek, zuen Ibarrean bertan ikasteko aukera duzue, zuen auzokoekin eta Udaletxeko diru laguntzarekin.

Zalantza guztiak Udaleko Euskara Zerbitzuan argituko dizkizute. Zoazte, zoazte...



***¡conseguido!**

Kanpainako irudia

HAURRAK

LARUNBLAI

Euskarazko aisialdi talde egonkorak. D ereduko Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako haurrak.

Urriaren 2tik aurrerako larunbatak, 16:30etik 18:30era.

Kontsultategiko beheko aldean.

Izen emateak: irailak 15, 16, 17 eta 20an Euskara Zerbitzuan, 9:00etatik 14:00etara. Ibarrean erroldatuek lehenatasuna izango dute.

Prezioa: urritik abendua bitarte, **30 €**.

Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan.



2009/10 Ikasturteko taldearen irudia

LUDOTEKA

4 eta 12 urte bitarteko haurrak. Asteazkenak (ele bietan), ostegunak (euskaraz)

eta ostiralak (ele bietan), 17:15etik 19:15era.

Urriaren 4tik aurrera.

Idoi plazako lokaletan.

Izen emateak: Idoi plazako lokaletan bertan **urriaren 4tik aurrera** (irekiera festa eta txokolata da).

Kuota: 24 €/ urtean, 6 €/hilean.

Informazio gehiago Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan: 948 15 13 82.

HAURRENTZAKO IGERIKETA EUSKERAZ

Ostiraletan Hastapenak 0, Hastapenak 1 eta Behe-mailako Hobekuntza. Asteazkenetan Hastapenak 0ko talde bat.

Izen emateko epea: irailak 20ra arte irekita 012aren bidez.

Informazio gehiago Kirol Zerbitzuan: 948 24 68 50.

PILOTA (ELE BIETAN)

5 urtetik gorako haurrentzako.

Astearte eta ostegunetan, 17:30etik 19:00etara.

Izen emateko epeak: irailak 20tik aurrera irekita, 012aren bidez.

Informazio gehiago Kirol Zerbitzuan: 948 24 68 50.

EUSKAL DANTZAK EUSKARAZ

6 eta 9 urte bitarteko haurrentzako.

Astelehenak, **urriak 4tik aurrera**, 17:30etik

19:00etara.

Eguzki plazako Ludotekan.

Izena emateko epea: irailak 20tik 24ra, 9:00etatik 14:00etara, Euskara Zerbitzuan.

Kuota: erroldatuek 10 € eta erroldatu gabeek 30 €.

Mugatutako plaza:

- Gutxienez 10 haur, gehienez 22.
 - Parte hartzaileen zerrenda izen emate hurrenkeraren arabera osatuko da, taldeak osatu arte.
 - Erroldatu gabeak zuzenean itxaron zerrendara pasako dira.
- Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan.



2009ko Euskararen Asteko erakustaldi baten irudia

IPUINKONTALARIAK EUSKARAZ

- **Urriak 19**, asteartea, 18:00etan, San Pedro I.P.-an.

- **Azaroak 16 de noviembre**, asteartea, 18:00etan, San Pedro I.P.-an

OLENTZERORAKO KARTELEN LEHIAKETA

Ibarrean erroldatutako edo San Pedro Ikastetxe Publikoko Lehen Hezkuntzako 1.-6. mailako ikasleentzako. 2 kategoria: 1. eta 3. maila tartea eta 4. mailatik 6. mailara.

Lanak aurkezteko epea: abenduak 13, astelehena, 13:00etan.

Aurkezteko lekuak:

udaletxeko bulegoak, San Pedro ikastetxeko atezaintza eta Kultur Etxea.

Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan.



lazio kartelaren irudia

HAURRENTZAKO FILMA EUSKARAZ (gaztelarazko azpitituluekin)

Goazen ilargira! Hiru eulitxo bat batean astronauta bihurtu eta ilargira bidaiatu beharrean aurkituko dira...

Eguna: **abenduak 29**, asteazkena.

Ordua: 17:30.

Lekua: Kultur Etxeko Auditorioa.



Filmaren irudi bat

GAZTE ETA HELDU EUSKALDUNAK

HELDUENTZAKO EUSKARA IRAKASKUNTZA

18 urtetik gorakoentzako.

Izen emateko epea: irailean zehar.

Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan eta www.euskafe.com.

Irailak 10ean, 19:00etan, Mutiloako plazan, Juan Valdésekin bere ikasketa prozesua konstatuko digu eta 2010/11 ikasturtean zehar euskara ikasi ahaliko dugun eukaltegi ezberdinei buruzko informazioa emango digu.



lazio kanpianako kale ekintzaren irudia.

HELDUENTZAKO EUSKARA IKASTEKO BEKAK

Ibarrean erroldatutako pertsonentzako.

Eskaerak aurkezteko epea: urriak 8, 14:00etan.

Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan.

MINTZAKIDE

Mintza taldeak euskaraz.

Taldeetan euskaraz hitz egiteko jartotasuna lortu nahi duten pertsonak eta gustuko duten hori egiten duten bitartean beste batzuei zentzu horretan lagundu nahi dietenak biltzen dira.

Izen emateko epea: urriak 1etik 22ra.

Informazio hitzaldia eta pikotoea: urriak 7an, osteguna, 20:00etan, Aranetxea.

Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan, <http://www.blogak.com/mintzakide>, edo egitasmoaren koordinatzaileari galdetuz: 948 96 05 16.



HELDUENTZAKO EUSKAL DANTZAK EUSKARAZ

Gazte eta helduentzako.

Urriak 14, 21 eta 28, osteguna, 20:00etatik 21:30era.

Lekua: Kontsultategiko beheko aldean.

Izen emateko epea: irailak 27tik urriak 1era, 9:00etatik 14:00etara, Euskara Zerbitzuan.

Kuota: erroldatuentzako 10 € eta erroldaturik ez daudenentzako 30 €.

Taldea: gutxienez 8 pertsona eta gehienez 16.

MIKOLOGIA TAILERRA EUSKARAZ

Mikologiaren mundura hurbilpen teorikoa.

Tailerra ordu eta erdiko **bi saio teorikoz** osatuko da (azaroak 13, larunbata, 13:00etan, Larrazkoa elkartearen eta abenduak 11, 13:00etan, Torrero elkartearen). Bi saio horietan Ibarreko zizak sailkatzen ikasiko duzu.

Izen emateko epea: azaroak 2tik 5era, 9:00etatik 14:00etara, Euskara Zerbitzuan.

Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan.

Prezioa: 10 € erroldatuentzako eta 30 € erroldatu gabeentzako.

Taldea: gutxienez 8 pertsona eta gehienez 20.



BESA ARDANDEGIRA IRTEERA-TXANGOA

Arabar Errioxako arandegi hau bisitatuko digu ardoaren elaborazio prozesua eza-gutzeko.

Data mahatsaren ontzearen arabera zehaztuko da (gutxi gora behera, urriaren azken astean edo azaroaren lehenengoan). Interesa dutenek urriaren erdialdean deitu beharko dute.

Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan.



HEZITZAILEENTZAKO TAILERRA

Nola sustatzen da euskararen erabilera aisialdiko ekipamendu eta jardueretan? Aisialdiko, kirolerako, ludoterako, kanpaldietako... begiraleentzako tailerra.

Edukiak:

- Soziolinguistika aisialdian: oinarriko kontzeptuak.

- Aisialdiko hezitzaileen lana hizkuntza normalizatorako.

- Hizkuntza normalizatorako tresnak.

Iraupena: 10 ordu.

Datak: 5 orduko 2 saio azaroak 15 eta 22an, astelehenak.

Ordua: 16:00 – 21:30.

Prezioa: Doakoa Arangurengo hezitzaileentzako, 10 € erroldatuentzako eta 80 € erroldatu gabeentzako.

Taldea: gutxienez 10 pertsona eta gehienez 20.

Izen-emateko epea: **azaroak 2tik 5era**, 9:00etatik 14:00etara, Euskara Zerbitzuan.

EUSKALDUNEN FITXATEGIA

Aranguren Ibarrean erroldatuta egonik, euskara gaitasunen bat eta 2 urte baino gehiago duenak, eta bere datuak Euskaldunen Fitxategian egoteko interesa duenak, Euskara Zerbitzuan aurkituko duen **galdetegia** bete dezake.

ARGITALPENAK

Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Arangurengo Udalak argitaratutako «Estudio Sociolingüístico del Valle de Aranguren» argitalpenaren ale bat nahi baduzu, jar zaitez Euskara Zerbitzuarekin harremanetan. Erroldatuentzako **doako** aleak daude.



Udalaren helburua Ibarreko taldeekin elkarlanean aritzea da. Horregatik, Udaletik gizarte eragile eta norbanako guztiei hizkuntzaren normalizazio prozesu honetan parte hartu eta inplikatzeko gonbidapena luzatu nahi dizuegu.

EUSKARA ZERBITZUA
Eskaletako k/9, Mutiloa
Astelehenetik ostiralera
9:00etatik 14:00etara
948 15 01 93

euskera@aranguren.es
www.aranguren.es